

# **ARESOKO UDALBATZAREN EZ OHIKO BILKURA**

Areson, 2015ko ekainaren 17an, arratsaldeko 17:00tan eta Aresoko udal aretoan, ez ohiko Udaleko plenoa biltzen da, aurretik Ur Alguero Chivite Alkate Jaunak deituta, eta ondoren adierazten diren zinegotziak bertaratuak izan direlarik ez ohiko bilkura burutzeko.

**Organua :** Batzarra  
**Deialdia:** lehenengoa  
**Eguna:** 2015/06/17  
**Ordua:** 17:00  
**Lekua:** Udalaren Batzar Aretoa

## **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**

Mikel Baraibar Garmendia\_  
Xabier Domingo Zubillaga Uranga  
M<sup>a</sup> Asunción Arratibel Onsalo  
Eden Alguero Chivite  
Jon Gurruchaga Echeverria  
Francisco Javier Belaunzaran Mariezcurrena

## **BERTARATU EZ DIRENAK**

Ur Alguero Chivite

## **IDAZKARIA**

Ione Miren Lazkoz Maiza

GAI- ZERRENDA/ ORDEN DEL DÍA:

- 1.- Batzarrak burutzeko maiztasuna zehaztu.
- 2.- Alkate ordea izendatu.
- 3.- Batzordeak osatzea.
  - 3.1.- Baso batzordea
  - 3.2.- Festa batzordea.
  - 3.3.- Euskara batzordea.
  - 3.4.- Hirigintza batzordea.
- 4.- Organo kolejiatueterako ordezkariak eta ordezkoak izendatu.
  - 4.1.- Mendiadlea Mankomunitatea
  - 4.2.- Araitz-Areso-Betelu-Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitatea.
  - 4.3.- Iparraldeko Euskara Mankomunitatea.
  - 4.4.-Arano-Areso-Goizueta eta Leitzako Gizarte Zerbitzutako Mankomunitatea.
  - 4.5.- Plazaola Partzuergo Turistikoa.
  - 4.6.- Cederna-Garalur.
  - 4.7.- Eskolako kontseiluko ordezkaria.
  - 4.8.- UEMAko ordezkaria.
- 5.- Aresoko Udal Hirigintza Elkarteko administrazio kontseiluko ordezkariak izendatu.
- 6.- Udaleko bigarren solairuko bigarren etxe bizitzaren alokairu espedientea onartzea.
- 7.- Eskaera eta galderak.
- 8.- Denetarik

**Esan-eginak eta erabakiak**

Alkate jaunak bilera hasi eta berau publikoa izendatua, arratsaldeko 17:05 direnean, Udal Idazkariak frogaturik sesioa hasia izateko, beharrezkoa den bertaratutako quoruma nahikoa dela, gai zerrendan jasoak dauden puntuak ezagutzeari ekiten zaio.

### **1.- Batzarrak burutzeko maiztasuna zehaztu.**

Batzarrak burutzeko maiztasunari dagokionez, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

1.1- Legeak behartzen duen hiru hileko gutxieneko epea errespetatuz, batzarrak burutzeko maiztasuna ez zehaztea, hau, beharren eta egoeraren baitan uztea.

### **2.- Alkate orde izendatu.**

Alkate orde izateko proposamen bakarra egonik, aho batez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

2.1.- Asun Arratibel Onsalo eta Jon Gurruchaga Echeverria lehen eta bigarren alkate orde izendatzea, hurrenez hurren.

### **3.- Batzordeak osatzea.**

Udalaren antolaketa moldatzerako garaian batzordeka lana egingen dutela adosten dute, horretarako batzorde bakoitzeko arduraduna zein izanen den adieraziko dute.

Udalaren batzordetako arduradun izanen diren zinegotziak izendatzeari ekiten diote eta aho batez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

3.1.- Baso eta abeltzaintza batzordea: Jon Gurruchaga eta Eden Alguero.

3.2.- Festa batzordea: Asun Arratibel eta Javi Belaunzaran.

3.3.- Euskara batzordea: Javi Belaunzaran.

3.4.- Hirigintza batzordea: Ur Alguero Chivite eta Asun Arratibel.

3.5.- Udalarenak diren eraikinen mantenuaz M<sup>a</sup> Asun Arratibel arduratuko da.

#### **4.- Organo kolejiatuetarako ordezkariak eta ordezkoak izendatu.**

Kontutan izanik Aresoko udala zein mankomunitate eta organo kolegiatuetan partaide den, hauetan udalaren ordezkari izanen diren zinegotziak izendatzeari ekiten diote eta aho batez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

4.1.- Mendialdea Mankomunitatea, ordezkaria: Mikel Baraibar Garmendia.

Ordezkoa: Txomin Zubillaga Uranga.

4.2.- Araitz-Areso-Betelu-Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitatea, ordezkaria: Jon Gurruchaga Echeverria.

Ordezkoa: Mikel Baraibar Garmendia.

4.3.- Iparraldeko Euskara Mankomunitatea, ordezkaria: Javi Belaunzaran.

Ordezkoa: Eden Alguero Chivite.

4.4.-Arano-Areso-Goizueta eta Leitzako Gizarte Zerbitzutako Mankomunitatea, ordezkaria: Ur Alguero Chivite.

Ordezkoa: Asun Arratibel Onsalo.

4.5.- Plazaola Partzuergo Turistikoa, ordezkaria: Eden Alguero.

Ordezkoa: Javi Belaunzaran. Mariezcurrena

4.6.- Cederna-Garalur, ordezkaria:Ur Alguero Chivite.

Ordezkoa: Txomin Zubillaga Uranga.

4.7.- Eskolako kontseiluko ordezkaria: Txomin Zubillaga Uranga.

Ordezkoa: Mikel Baraibar Garmendia.

4.8.- UEMAko ordezkaria: Javi Belaunzaran.

Ordezkoa: Asun Arratibel Onsalo.

4.9.- Nafarroako Udalerrien Federazioa, ordezkaria: Ur Alguero Chivite.

Ordezkoa: Asun Arratibel Onsalo.

## **5.- Aresoko Udal Hirigintza Elkarteko administrazio kontseiluko ordezkariak izendatu.**

Aresoko Hirigintza Elkarteko Administrazio kontseiluko ordezkariak izendatzerakoan, denen adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

- 3.1.- Ur Alguero Chivite lehendakari izendatzea.
- 3.2.-Jon Gurruchaga Echeverria, lehen bokala izendatzea.
- 3.3.-Asun Arratibel Onsalo, bigarren bokala izendatzea.
- 3.4.- Xabier Domingo Zubillaha Uranga hirugarren bokala izendatzea.
- 3.5.- Mikel Baraibar Garmendia laugarren bokala izendatzea.

## **6.- Udaleko bigarren solairuko bigarren etxe bizitzaren alokairu espedientea onartzea.**

Denen adostasunez gaurkoan gai hau ez tratatzea erabaki da azken orduan sortutako aldaketa eta ezusteko batzuek direla eta baldintza plegua eraldatua izan behar duelako.

Gaia berriro aztertu eta hurrengo batzarrerako uztea erabaki dute aho batez.

## **7.- Eskaera eta galderak.**

## **8.- Denetarik**

Aztertu beharrekoa aztertuta, 19:10 orduak izanda, Udal bilkurari bukaera ematen zaio eta hemen nire aurrean dauden jaun-andereek, nirekin, Idazkariarekin Akta sinatu dute. Ziurtatu egiten dut.

